# lezamabizirik

herri aldizkaria +++ 2016




www.lezamabizirik.com // lezamabizirik@lezamabizirik.com

# ANTE LA FALTA DE DEMANDA EL AYUNTAMIENTO DECIDE AMPLIAR LA OFERTA.



El **24 de octubre de 2008** el ayuntamiento abre la **licitación del concurso público** para la venta de una parcela de **2.170m** en el **polígono industrial de kurutze** por un precio de **1.052.676,63 de euros**, tasación del arquitecto asesor del ayuntamiento. **No se presento ningún licitador.**

Es un terreno donde se puede construir una nave de 1.553 m2 de planta y con una superficie hábil total de 2.575 m2.

El 21 de **2014** se vuelve a tasar en **571.193 euros.**

El 15 de marzo de **2016** se tasa en **503.003,88 euros**. Este es el precio con el que **el ayuntamiento** en el pleno del **29 de junio de 2016 aprueba sacarlo a la venta.**

**Las tasaciones**, en este caso, **se han echo utilizando** datos de las ventas, parcela y pabellones del trimestre anterior en esa zona, para calcular **el valor de mercado**. Según la ley de oferta y demanda, **el exceso de oferta o la falta de demanda provocan la reducción del valor de mercado**.

Es evidente que **desde 2008 ha disminuido la demanda** en la compra de terreno industrial en kurutze. También es evidente, **que la oferta existente es excesiva**, ya que **el valor de mercado ha bajado en más de un 50% en 8 años, luego ampliar la oferta no tiene explicación lógica.**

Aun así, **El Ayuntamiento de Lezama ha iniciado los trámites del Plan de Sectorización de las tierras de alto valor natural de Kurutze.**

Suponemos que el **ayuntamiento tendrá motivos para iniciar un proceso, que además de estar recurrido en los tribunales**, va en **contra de las leyes básicas del mercado.**

**Solicitamos la apertura de un debate publico en el que el ayuntamiento exponga dichos motivos.**

Más información: www.lezamabizirik.com (NOTICIAS)

# KURUTZEKO TREN GELTOKIA



Orain dela hile batzuk, Lezamako MOREAK emakume taldeak, idazki bat zuzendu zien Eusko Treneko arduradunei, egungo geltokiaren egoera kezkagarria azalduz; hain zuzen, nasa batetik bestera pasatzeko dagoen tunela puntu beltza delako.

Jakinik metroko 3° linea osotzeko asmoz hainbat geltokitan hobekuntzak egingo direla, Moreak-ek ETS-ri galdetzen dio zein konponbide emango zaion puntu beltza den pasabide horri.

Hasierako erantzuna ez zen egokitzat hartu, zeren emandako erantzunean kilometro erdiko ibilbide iluna egitea proposatzen zen.

Erantzun honekin konforme ez eta herritarrak aktibatu ziren Kurutzeko geltokiari irtenbide egokiago baten bila.

Aktibazio honek ekarri zuen batzar bat egitea Kurutzeko Ermitan. Bertan Eusko Trenbide Sareak-eko arduradun teknikoek proiektu berriaren planoak eta azalpenak agertu zituzten, udaleko bi taldeko ordezkariak, Moreak eta beste ekarteetako kide eta herritarren aurrean.

Era berean, aipatutako kezka-eskariari irtenbide egokiagoa ematen zaio, hau da, tunelak jarraituko duen arren (egokituta), nasa batetik bestera pasatzeko pasarela bat, igogailu eta guzti, ezartzeko asmoa dago.

Lezamako beste geltokiari buruz ez zen agertu ez planorik ez azalpenik, aipamen labur bat soilik geltokiak dituen ezgaitasun eta soberakinei buruz.
Mereziko luke geltoki horretaz eta bere erabileraz batzar berezi bat egitea.
Arazoen aurrean merezi du aktibatzea eta kasu honetan bezala, herritarrengan eragina duen beste edozein erabakitan ere, parte hartzeko espazioak sortzea

# ERREKATXU GARBITU ETA DENENTZAKO ZABALTZEA... LASTER?

Abenduaren 15ean 8 urte beteko dira Lezamako Tiro zelaia itxi zutenetik. Data horretan 20 urte baino gehiago zeraman jardunean legea bete barik, ingurumena pozoitzen eta lezamar guztion osasuna kaltetzen. Orain lezamar gehienek ahaztuta dute eta batzuk ez dute ezta ezagutu ere, baina orduan asteko hiru egunetan jarduten zuten, astean 10.000 tiro baino gehiago jaurtitzen. Beraz, 2008ko abenduaren 15ean, zorionez, tiroak jaurtitzeko instalazioak itxi ziren. Baina, 8 urte igaro eta udaleko instalazio hauetan, lezamar guztionak direnak, zer dela eta tiro jarduera ilegalak eragindako kutsadura ez da garbitu... edota, udal instalazioak badira, zergatik jarraitzen dute itxita?.

Lezama Bizirikek kudeaketa ugari egin ditu, besteak beste Bizkaiko Batzar Nagusietan onartu zen proposamena prestatzen edota Lezamako Udalaren aurrean eskaera batzuk egiten: Errekatxuren ingurutik kutsadura kentzeko eta instalazioak, guardetxea barne, lezamar guztion erabilerarako zabal daitezen eskatzeko. Baina orain arte alferrik izan dira ahalegin guztiak, zein da arrazoia?.

Azkenaldian, badirudi zeozer mugitzen ari dela udalean, dauden lokal publikoak erabiltzeko irizpideak berraztertzeko. Espero dezagun guardetxea eta tiro zelaia izandako inguruari, lezamar guztion onurarako zabaltzeko ordua laster ailegatzea.



## 2017KO EGUTEGI TXIKIA PREST

Egun hauetan, Lezama Bizirikek urtero egiten duen egutegi txikia banatuko dugu herrian. Azken urtetan bezala ilargiaren faseak, ilbeherakoak zein ilgorakoak, agertzen dira, baratzarako informazio interesgarria denentzako.